

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Lagunarteko giroa nagusitu, Sorabillan

Iturzaeta memorialaren finalurrekoak eta finalak jokatu ziren aurreko asteburuan / 7-9

Roger Wesleyren akademiak izen berria izango du aurrerantzean: Kiwi Corner / 3

"Giza animaliak", Josu Peralesen iritzi-artikuluak Palestinak bizi duen errealitate gordinez / 5

Auzo izaera indartu zuen bazkariak eta ondorengo ospakizunak, Olagain auzunean / 2

Urnietako igerilekua larunbat honetan zabalduko dute, udako denboraldiari hasiera emanez / 6

Europako Legebiltzarrerako hauteskundearen emaitzak, igandean, Aiurri.eus gunean / 15

bertako
Igo-gailuak | ascensores

HARRO!
www.bertako.eus



Olagain auzunean bizitzen jarri zirenen ondorengoak ageri dira argazkian, Aburuza sagardotegiaren kanpoaldean. AIURRI

Olagaindarren festa

Ospakizunean parte hartu zutenentzat egun gogoangarria izan zen, aurreko larunbatekoa. Grupo Santa Kruzen lehen familiak bizitzen jarri zirela 50 urte betetzen dira, eta hori izan zen ospakizuna antolatzeko arrazoi nagusia

Erredakzioa ANDOAIN

Grupo Santa Kruz auzoan hazitako dozenaka lagun elkartu zen larunbatean, lehen auzokideak bertan bizitzen jarri zirela 50 urte bete direnean. Ospakizunean bigarren belaunaldiko andoaindarrak elkartu ziren, auzoan bertan hazitakoak. Luntx-arekin hasi zen eguna eta, ondoren, Adunako Aburuza sagardotegian bazkaldu zuten. Arratsaldean, ospakizunak jarraipena izan zuen Olagain tabernan. DJ Ezekiel disko-jartzaileak girotu zuen iluntzea. Ospakizunean parte hartu zutenentzat egun gogoangarria izan zen.

Leitzako jaitsiera, igandean

Adineko auzotarrek mendi-zeharkaldia egin zuten, aurreko urteetako ohiturari jarraipena emanez. Santa Kruz auzoko jubilatuen elkarteak antolatuta, talde batek Leitzatik Andoainera bitarteko zeharkaldia egin zuen. Beste talde batek Leitzarango bixerara joan-etorria egin zuen. Denera, 52 lagunek parte hartu zuten.



DJ Ezekiel musika-jartzaileak girotu zuen larunbat arratsaldea. AIURRI



Leitza-Andoain zeharkaldia oinez egin zuen taldea, argazkian. AIURRI

Aburuza sagardotegian bazkaria



Kupelen artean giro ederrean izan ziren. AIURRI



Aburuzan, bazkarian, ia ehun lagun elkartu ziren. AIURRI



Auzunetik Bixeraraino joan-etorria egin zuen taldea, argazkian. AIURRI

“Oso aberasgarria da hizkuntzak ikastea, ateak irekitzen dizkizulako”

ROGER WESNEY KIWI CORNER AKADEMIAKO BURUA

Kiwi Corner du izena, lehen, The Tolkien Centre zenak. Bi hamarkadako ibilbidearen ondoren, izena eta irudia aldatu diote Andoaingo akademia ezagunari

Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN

Zelanda Berriko hegazti bat duzue, orain, akademiaren ikur nagusi. Zer dela eta izen aldaketa?

Barrutik etorri dira aldaketak eta horren ondorio hartu du izen berria akademiak. Irakasle-talde ederra daukagu, zortedunak sentitzen gara. Hala, orain pare bat urte, akademiaren izenaren gainean hausnartzen hasi ziren, eta irudia pixka bat eraberritu beharrean zela ondorioztatu zuten. Gainera, akademiak berak izen bat zuen, The Tolkien Centre, eta, plataforma digitalean, aldiz, beste bat zegoen. Ez zuen zentzurik horrek.

Bide horretan, jakina da nik Zelanda Berriarekin dudana harremana, nire sorteria baita. Hortaz, irakasle baten proposamenetik atera zen ideia: kiwi. Izen laburra, erraz ahaskatzekoa behar genuela pentsatu genuen. Prozesu polita izan zen aukeraketa, irakasle lan-taldea bildu baikin eta ikasleei ere galde-tu zitzaion. Zerrenda luzea geneukan askotariko izenekin eta proposena honako hau iruditu zitzaigun: Kiwi Corner.

“Kiwi” hitza entzun eta askok frutarekin egingo dute harreman zuzena. Zuek, ordea, hegazti bat irudikatu duzue.

Soilik, Zelanda Berriaren kokatzen den hegaztia da kiwia, eta herrialdearen ikur esanguratsua

da. Ez da asko ikusten, animalia gautarra baita, erdi itsua. Desagertzeko zorian egon zen, espezie inbaditzaileengatik, hein batean, eta, gainera, ez du hegan egiten. Maorien buruzagiek hegaziaren lumak erabiltzen zituzten, beren boterea adierazteko.

Duela zenbat urte etorri zinen hona? Londresen ezagutu nuen 80. hamarkadan Blanca nire emaztea. Andoaingo da bera. 1987an iritsi ginen Andoainera, lehenengo. Harrezkero, zenbait joan-etorri egin ditugu Zelanda Berrira. Bertan ere bizi izan gara. Egun, Andoain da gure etxea, baina bihotza bi zatitan daukat banatuta. Harreman estua gordetzen dut nire herrialdearekin, lau seme-alabetatik hiru bertan bizi baitira. Esan bezala, birritan izan gara bertan bizitzen familian, eta batzuk Zelanda Berriaren gelditu dira.

Bustidura ezberdina dauka Zelanda Berriko hizkerak, hemen irakasten den ingelesaren aldean. Zer du zuretzat zure ama hizkuntzak bereziki hizkuntza-eredu anglosaxoiarekin konparatuta?

Hizkuntzari dagokionean, ingeles kolonia guztietatik Ingalaterrarekin antzekotasun handienak dituen herrialdea izango da, ziurrenik, Zelanda Berria. Ondorioz, azentua ez da horrenbeste aldatzen. Horrez gain, ia

herrialde osoan, hizkera berbera erabiltzen dugu. Interesgarria da hori, beste kasu batzuetan, Euskal Herrian bezala, eremu geografikoaren arabera, zenbait aldaketa ematen direlako hizkuntzaren beraren ezaugarrietan. Bada, Zelanda Berriaren, ia ezer ez ez.

Hona salto egitean, horrela, ez dut arazo handirik izan, hemengo eredura egokitzeko. Hasi ginenean, jendea tematuta zegoen horrekin, "ingeles britaniarra izan behar da". Urteen poderioz, ideia bera ere aldatu da, onerako.

Kiwi Corner akademian, ingelesa duzu komunikaziorako erreminta. Eta, egunerokoa?

Normalean, gaztelaniaz. Ez naiz euskal giroan ia murgildu. Horrenbeste urteren ondoren, gai naiz, gutxi gorabehera elkarrizketaren testuingurua ulertzeko, baina frustrazioa eragiten dit ezin parte hartu ahal izateak. Nolanahi ere, aukera dudana bakoitzean ikasten ahalegintzen naiz. Finean, oso aberasgarria da hizkuntzak ikastea, ateak irekitzen dizkizulako. Mundua beste ikuspuntu batetik ikusteko aukera ematen dizu.

Akademiara gerturatuta, zein profileko jendea gerturatzen da zuegan, batez ere? Zein helbururekin? Gorantz egin du ingeles mailak urteen joanarekin. Oro har, lehen,



Roger Wesley, eraberritu duten akademiaren aurrealdean. AIURRI

heldu eta haur gehiago genituen. Egun, "titulitis" delakoak pisu handia du eta, Cambridgeko azterketak prestatzeko zentro ofiziala garenez, ikasle gazte pila daude gurean, 12 urtetik 17ra bitarte. B2 maila, "First" gisa ezaguna dena, motz gelditzen ari da. Garai batean, ikasle gehienek akademia uzten zuten, behin maila hori lortuta, baina, orain, askok jarraitzeko ohitura daukate, eta unibertsitatera iritsi aurretik eskuratzen badute, hobe.

Esango nuke, eskolan, lau bat urterekin hasten direla umeak ingelesa ikasten. Euskal Herrian, Donostian, klaseak ematen hasi nintzenean ni, hamar urterekin ekiten zioten hizkuntzan trebatzeari. Orain, eskoletan, bestalde, ingeleseko ikasgaiak gain, besteren batean ere lantzen da hizkuntza. Halaber, teknologia berriek eragina izan dute eta gauza asko ikus ditzakegu orain, telebistan, adibidez, jatorrizko bertsioan, itzuli gabe.

Bi hamarkada oso daramatzazu akademian lanean, eta, hala ere, zuen hitzetan, metodo tradizionalaren alde egiten duzue. Zertan data?

Oso pertsonala da hizkuntza bat ikastea, hots, garrantzi handia ematen diogu aurrez aurreko harremanari. Erreminta digitalek aukerak biderkatu dizkigute, jakina, eta niretzat aukera onena talde batean sartu eta bertan trebatzea da: elkartu, teoria ikasi, praktikatu, hitz egin, hanka sartu... Horrela ikasten da.

Zertan aldatu da, oster, zuen akademia bi hamarkadako bidean?

Garai batean, marko akademiko hertsian oinarritzen zen ikasketak; orain, malguagoa da, gramatikaz harago badelako zer ikasia. Gurean, eskolan ikasten dutenaz gain, beste makina bat baliabide eskuratzen dituzte, beren ingelesa orrazteko. Guretzat helburu nagusia ez da ikasgaia gainditzea, hizkuntza komunikatzeko erreminta gisa ulertuta, ingelesa ahalik eta ondoen mendera dezaten saiatzen gara.

Zenbat talde dituzue akademian?

Adinaren eta ingeles mailaren arabera mailak ditugu, gurean. CH maila umeentzat da, *children* (hiru urte). Ondoren, nerabezarora iritsi aurretik Y mailan trebatzen dira, *young* (hiru urte). Gerora, T maila eskaintzen dugu, *teenager* delakoa (sei urte). T6 maila B2 mailari egiten dio erreferentzia. Hortik aurrera, geroz eta ikasle gehiagok jarraitu nahi dutela nabaritu dugu. C2 maila unibertsitatera ailegatu aurretik eskuratu duen ikasle-taldea ere badaukagu. Urte asko eman dituzte gurean eta ikasle finak dira.

Ikasturtea amaituta, 2024-2025ari begira zaudete orain. Zer egin, zue-nean ikasi nahi duenak?

Bai, datorren ikasturteari begira, prestaketa-lanetan ari gara, jada. Hainbat modu daude izena emateko: akademiara bertaraututa, webgunetik edota telefonozenbakira hots eginda (688 76 35 70).



Leizaran markoak. AIURRI

Ixtera doa Andoaingo Leizaran Markoak negozioa

Kaleberria, 40 kalean da negozioa, Bekoplaza ondoan. Urteak eta urteak eman ditu zabalik, Ander eta Koldo Armendariz anaiei eskutik.

Berriki iragarri dutenez, datorren ekainaren 28an atek itxiko ditu Leizaran Markoak negozioak. Urte askoren ostean, zera gehitu dute: "Eskerririk asko hainbeste urtetako lankidetzeta eta adiskidetasunagatik".



Iazko San Juan jaiak. AIURRI

Bideo berezia egiteko laguntza eskatu du Andoaingo Udalak

San Juan jaietan oinarrituriko bideoa egin nahi du Andoaingo Udalak. Berezia izango da, pieza herriarren iazko bideo-parteekin osatu nahi duelako. Herriarren laguntza eskatu dute, egin ahal izateko: "Jaietan grabatu dituzuen bideoak eta argazkiak bidali, komunikazioa@andoain.eus posta elektronikora edo 747 48 75 47 telefono zenbakira".

IN MEMORIAM

MIREN ZARRAGA PAGOLA ETXEBERRIETAR IZATEAZ HARRO ZEGOEN ANDOAINDARRA

Miren, memoria bizia



AIURRI

Igandean hil zen, 92 urteak bete berri zituela. Asteartean egin zuten haren aldeko meza, San Martin elizan. 1932ko maiatzaren 9an jaio zen, Zumea kalean. Bi hilabete zituela, Etxeberrieta auzunera joan zen bizitzera. Andoainen, ezkondu zen arte, Laborden egin zuen lan. Etxeberrietar petotzat zuen bere burua, eta Aiurrizale eta euskaltzale sutsua zen. Haren lekukotza garrantzi handikoa izan zen, bereziki, Gerra osteko Andoain hobeto ezagutzeko. Bada XX. mendearen lehen erdian jaiotako gehien-gehien zeharkatu dien gertaera da, eta hori 1936ko Gerra izan da. Zarraga ez zen gertaera gogor eta luze hartatik salbu, eta gerrak eta gerra ondorenak eragina izan zuen bere bizitzan.

Iragana eta haurtzarora gogoan hartuz, honako hau zuen gogoan: "Gerra ostean, bederatzik urterekin, etorri nintzen Frantziatik Andoainera. Guk genuen maistra Doña Carmen Talavera zen, emakume errepublikazalea. Gogoratzen naiz nola orduan eskoletan ematen zen ogi opil bat eta txokolataa 'Cara al sol' kantatzen baldin bazen, baina guk ez 'Cara al sol' eta ez ezer ez, klaro... Norbaitek zabaldu zuen mezua hala ibiltzen zela, eta salatu egin zuten. Eta, geroztik, penaz esaten zigun 'aprender a cantar el Cara al sol porque sino no os puedo dar el pan y el chocolate'. Eta gu goseak geundenez...".

Gertaera haiek eta gehiago aurki daitezke "Atzoko Andoain eta andoaindarrak" argitalpenean. XX. mendearen lekukotza aparta da Larramendi Bazkunak 1998-2000 urte artean argitara eman zuena, Jone Larrañaga kazetariak zuzenduta eta Andoaingo Udalak lagunduta. Lekukotza eman zuten herriarren artean honako hauek aurki zitezkeen: Miren Zarraga Pagola, Jose Manuel Erkizia Urla, Joxe Eizmendi Jauregi, Bixente Olano Otegi, Loren Navarro Hombrados, Josepa Ormaetxea Mujika, Mikela Ansa Goenaga, Esther Arrieta Lizarribar, Iñaki Arregi Moraza, Jose Mari Olazabal Iñurrita, Imanol Egibar Juanena, Jose Mari Amutxastegi Aranzabal, Roke Ansa Goenaga, Migel Amas Egibar, Bixente Huizi Zuñiga eta Patxi Irizar Zarautz.

IN MEMORIAM

JEXUX MARI OTAEGI "SUSO" KARKAXA MUSIKA TALDEKO KIDEA

Suso, gaztetan kantari



AITOR ARREGI "TXISTO"

Jexux Mari Otaegi "Susos" andoaindarrak igandean hilik topatu zuten etxean. Gazte garaitan kantaria izan zen, eta horregatik zen ezaguna. 80. eta 90. hamarkadetan, Andoaingo Gaztetxe musika-giro hartan, talde ugari sortu ziren. Haietako bat zen Karkaxa. Axier eta Alberto Irazu anaiek martxan jarri zuten, Wewe eta "Susos"ekin batera. Hard-core estiloan trebatu ziren, eta gauzak zer diren, joan zen asteazkenean -maiatzak 29- garai hartako lagun asko elkartu zen, Scream AEBko taldeak Gaztetxean bertan eskaini zuen kontzertuan. 35 urteren ostean, taldea biran baita berriro. Lau egun beranduago, ordea, iritsi zen Susoren heriotza. Haren berririk ez zutela, alarma azkar batean zabaldu zen ezagunen artean. Suhiltzaileek hilda topatu zuten etxean, eta "Susos"ren lagun asko Juan Bautista Erroko etxeko atarian elkartu ziren. Karkaxa musika taldearen ibilbidean ezagun egin zen "Txeroke Mikel Laboaren kantak" diskorako grabatu zuten "Haika mutil" kantuaren bertsioa.



andoainDARRA
euskaraz

IRITZIA

IOSU PERALES ARRETXE ANDOAIN

Giza animaliak

Israelgo gobernuko defentsa ministroa, Yoav Gallant, tipo kezkarria da, siniestro. Bakerako arriskua. The Times of Israel egunkari israeldarrak jaso duenez, Benjamin Netanhayuren gobernuko defentsa ministroak adierazi du Israelgo indar armatuek "erabateko setioa" egingo dutela Gazako Zerrendan; 40 km luze eta 12 km zabal dituen lur-zerrenda txikia da, non 2 milioi gizaki inguru pilatzen diren, Israelek eraikitako harresi baten eta Mediterraneo itsasoaren artean harrapatuta. Testu hau idazten ari naizenean, milioi bat gazatarrek Gazatik kanpo babestu behar izan dute.

Gallantek esan du pertsona horiek guztiak "giza animaliak" direla eta, horregatik, Israelgo Gobernuak "horren arabera jokatzeko ari dela", elektrizitatea, gasa eta elikagaiak moztuta. Giza animalia gisa kalifikatzea Palestinako etsaia gizatasuna kentzeko plan baten parte da, Gazako populazioaren gaineko hilketa sionistak justifikatzeko. Antzera pentsatzen zuten Ben Gurionek eta Golda Meirrek. Azken horrek honako hau esan zuen: "Palestina ez da existitzen, eta palestinarrak direla diotenez ez dute naziorik osatzen, arabiar soilak dira". Bestalde, Ben Gurionek beti esan zuen Estatu berriaren konstituzioa bitxia dela, Torah dela, hau da, Itun Zaharra.

Badakit Hamasen eragina iristen den tokian sionismoarekiko gorrotoa zabaltzen dela, baita Israelekiko gorrotoa ere. Baina sionismoaren eragina iristen den lekuan, Palestinarekiko gorrotoa haurren sarraski bihurtzen da, botere sionistaren jarraibideak jarraituz. Dena okerragoa izan daiteke. Muturrek elkar elikatzen dute. Netanhayuk gero eta

gehiago estutzen du oinazearen gupila. Gazan geratzen diren biztanleei zerrendako puntu batean kontzentratzeko presioa egitea, ondoren bonbardatu ditzaten, norberak pentsa dezakeena baino gehiago da. Oraingoan, inork ez ditu bonbardaketak isiltzen. Europar Batasunak, nazioarteko zuzenbide oinarrikoenaren aurkako Israelen ekintza kriminal horiek gaitzetsi beharrean, Palestinari, munduko herrialde pobreenetako bati, dirulaguntzak bertan behera utziko zizkiola iragarri zuen, eta baldintzarik gabeko babesa eman dio Netanyahuaren gobernu fundamentalistari, Europako Batzordeko presidentea Ursula von der Leyen eskuindarraren bitartez.

Jarrera urrun edo agian dibergentean, Espainiako, Norvegiako eta Irlandako gobernuak elkarrizketaren, negoziazioaren eta bakearen bidea aukeratu dute. Europar Batasuneko jarrera berri horrek itxaropen-leiho bat irekitzen du, eta, kasurik onenean, jarrera bateratu baten oinarriak eztabaidatu beharko ditu Estatu Batuekin, Alemaniarekin eta Frantziarekin. Ohartarazi nahi dut mendebaldeko herrialdeen %75ek baino gehiagok onartzen dutela estatu palestinarra. Oraingoan, Europar Batasunak ez du hala egin, eta hautsi egin du mundu osoan bakearen alde lan egiteko sorreran emandako hitza.

Zertarako balioko du Palestinako Estatua onartzeak? Hamarkadak daramatzagu unea ez dela entzuten, eta urteak betetzen ez den promesa gisa pilatzen dira. Zergatik itxaron gehiago? Galdera ez da "zertarako balioko duen", galdera da: zer egingo dute Nazio Batuek, EBk eta Nazioarteko Zigor Auzitegiak

su-eten iraunkorraren agindua betetzeko? Gaza gutxi geratzen da. Nire ustez, beste herrialde batzuek bat egingo dute Espainiarekin, Irlandarekin eta Norvegiarekin, eta horrek balioko du, Israelen bertan, barrutik, sionismoaren sinesgarritasun-krisiak bultzada handia jaso dezan eta bidea irekitzen joan dadin gobernu autokratiko, ustel eta kriminal baten aurka daudenentzat. Oraingoan, pixkanaka, Israelek zigorgabetasun gutxiago du. Bere zoria oker liteke Estatu Batuen baldintza berrietara, Etxe Zuriak ezin du baitu onartu desobediente bat izateko luxua. Beraz, beti gogoratzen dut "SESBen ezusteko erorketa". Beste dorre batzuk erori dira, egia bat dioten esaldi bat da.

140 herrialdek baino gehiagok onartzen dute gaur egun estatu palestinarra. Albiste bikaina da. Ez da sinbolikoa besterik gabe, askoz gehiago da. Espainiak, Norvegiak eta Irlandak urrats on bat eman dute, eta berandu baino lehen beste herrialde batzuek bat egingo dute, blokeo larri bat hausteko eta negoziatio-mahai bat konponbidearen gakoa delako ideia normalizatzen joateko ahaleginean. Oslok intransigentzia sionistak azkenean boikotatu zuen bidea ireki zuen. Eta, hala ere, plan sionista, gaiztoa, Gazako bizitza akabatzea da, Gallanten arabera "giza animaliak" bizi diren tokia. Palestinako ordezkariak ez zuen onartu nahi eta ezin izan zuen onartu erbesteratutako palestinarrak ez itzultzea. Eta puntu horretan eten zen elkarrizketa-prozesu laburra. Israel ez zen Oslon egon negoziatzeko, inposatzeko baizik.

Zein da Gallant jeneralaren plan izugarria?

Bere alternatiba propioa du: Gazaren gaineko kontrol zibila



ARGAZKIA: ARKAITZ LASARTE

duen irtenbide baten aurkakoa da, eta Gazako gobernu militar baten aurka dago. Gallantek proposatzen duena Gazaz ez arduratzea da, horrek odol isuria eta prezio ekonomiko altua ekarriko bailuke (Gaza berreraikitzea ezinezkoa da). Zer nahi duen? Jakina, Gallantek ez du aurreikusten Hamasen edo Palestinako Aginte Nazionalaren gobernurik. Orduan, zer proposatzen du Israelgo ministroak? Gazako erabateko desagertuta, arazoa desagertu egingo litzateke. Oraindik ez dago oso argi Gallanten plana, baina bada zerbait hitzartua sionismoaren indar eskuindarren artean: Gazako biztanleriaren sarraskia eta zerrendaren suntsipen fisikoa. Itun horretaz gain, akordio izugarriak daude. Israelek Palestinako herriaren aurka egiten dituen gerra-krimen guztiak funtsezko lau zutabetan oinarritzen dira: estatu-politika dira; Amerikako Estatu Batuek emandako zigorgabetasun osoa dute; komunikabideak erosteak ke-gortina desinformatiboak ematen dizkie, eta gerra- eta okupazio-makinariaren finantziatio-iturriak oso dibertsifikatuta daude.

Uxagarria al da Israelen intransigentzia? Bai horixe. Etorkizuna irekita dago, eta EBk toki garrantzitsua izan nahi badu, Israelekin duen harremanean zorrotzagoa izan behar du. Harreman diplomatikoak haustea edo

etetea mezu ona litzateke hasteko. Era berean, errealista da sinestea Israelgo estatuaren aitortpenak herrialde arabiarren mugimendu aktibo bat bultzatzea, eragiten dien gatazka bati bizkarra emanda bizi izan direnak. Orain arte ez dute horrelakorik egin, beti beldur izan direlako zuhaitza astintzeak ez ote zituen iratzarriko udaberri berriak eskatzen dituzten herritar arabiar lokartuak.

Edonola ere, ez dago oinarrik gabeko baikortasunik. Netanhayu lehen ministro izanik, Israelek bere ibilbidean jarraituko du hondamendirantz, palestinarrak populazio zibila deuseztatuz eta, hala badagokio, lurralde berriak erraztuko dizkioten gerra berriak eraginez.

Israel bere begiaren logikak harrapatuta dago. 2024an, bere plana 1948. urtearekin lotzen da. Data horretan, garbiketa etnikoa hasi zen, baina oraindik ez da amaitu. Israelgo estatu berriak bere gaitasun guztiak erabili zituzten palestinarrak fusil puntan kanporatzeko. Milioi bat palestinarrak prozesu batean emigratzera behartu zituzten, lurrak, ondasunak eta etxeak utzita. Zibilak hil zituzten, orain bezala. Munduan ibili zen zibilen sarraskia. Deir Yassin bezala, ehunka herri suntsitu zituzten nahita. Israeldarrak saiatu ziren, baina ezin izan zuten gizateriaren aurkako krimena ezkutatu.

Larunbat honetan zabalduko dute Urnietako igerilekua

Irailaren 8ra bitarte zabalik izango da, egunero-egunero, goizeko 10:00etatik iluntzeko 20:30ak arte

Erredakzioa URNIETA

Uda gainean den seinale da iragarpena. Urnietarrentzat ez ezik, Andoaingo biztanle askorentzat udako aisialdiko aukeretako baita Urnietako igerileku irekita hurbiltzea.

Udal kiroldegiko bazkide ez diren pertsonak, igerilekurako udako bonua eskuratzeko aukera dute. Banakako bonuak 56 euro balio du, eta familia osoarentzat, aldiz, 112 euro. Sartzeko aukera gehiago dago, hamar

saioko bonoa edo egunean bertan txartela erosiz. Udalak ezarri ditu prezioak: "21 urtetik beherakoentzat prezioa 4,20 eurokoa izango da eta, 21 urtetik gorakoentzat, 6,70 euro".

Uztailean oinarrizko ikastaroak eskainiko dituzte, igerilekuan bertan.

Taberna zerbitzua, zabalik

Udan zabalik izango da kiroldegiko taberna. Izozkiak eta freskagarriak erosi ahalko dira, besteak beste.



Urnietako Udal kiroldegia, artxiboko irudian. AIURRI

Errepidearen gastua aurreratuko du Udalak

Zabaleta auzoko bizilagunen ezinegona arinduko da Urnieta eta Lasarte-Oria arteko saihesbide berria eraikitzen denean. Udalak dirua aurreratzea erabaki du eta, ondoren, Babiloniako eremu berriko jabeek bere gain hartuko dute gastua

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udaleko tokiko gobernu batzarrean Urnieta eta Lasarte-Oria arteko errepide berria eraikitze erabakia hartu dute. Egitasmoa azkarra gauzatu asmoz, Udalak errepidea eraikitze gastua bere gain hartuko duela erabaki du. Eta behin Babiloniako eremu hori amaitzen denean, jabetza berri horri eskatuko diote Udalak aurreratuko duen dirua bere gain hartzea. Erabakia plenoaren aurretik deitu zuten tokiko gobernu batzarrean hartu zen. Udalak emandako albistearen arabera, proposamena "EAJren

eta PSE-EEren botoei esker atarra zen aurrera puntua. EH Bildu, aldiz, abstenitu egin zen".

Gobernu taldearen ikuspegitik garrantzi berezia du erabakia: "Horrela, Zabaletako auzoan dagoen trafikoa handia arinduko duen eta auzo horretako bizilagunen zein herritarren bizi-kalitatea hobetuko duen bide-azpiegitura berria ahalik eta lasterren eraikitzen hasteko urratsak ematen jarraitzen du Udalak".

Zein da auzotarren ikuspegia, erabakiaren aurrean? Zabaletan bozeramaile lanak egin dituen auzotarra da Javier Barrientos, eta bere ikuspegia ez da hain

baikorra. Izan ere, Udalaren asmoa gauzatzeko eragile guztien oniritza behar da, eta, haren ustez, eremu horretako jabeoaren % 27 ez omen dator bat Udalak iragarritakoarekin: "Eta horrek bidea ematen dio alegazioen bat egiteko aukerari, auzoko bizilagunek hainbeste desiratzen duten lizitazioaren unea mugarik gabe atzeratuko duena". Beste behin, ere kexu da kamioiak oraindik ere lehen bezala igarotzen direlako. "Auzoak, 2011tik hona, kamioien legez kanpoko trafikoa jasan du, hainbatetan, leihotatik metro bat baino gutxiagora igaroz".

Ekitaldia, Lekaion

EH Bilduk ekitaldia antolatu zuen Lekaion, igandean Europako Legebiltzarra berritzeko hauteskundearen harira. Euken Garmendiak herri mailako irakurketa egin zuen, Urnietan hauteskunde hauteskunde ematen ari den joera aldaketa azpimarratuz. Ondoren, Jon Altolagirre EH Bilduko ordezkariak alderdiaren ikuspegia azaldu zuen.



AIURRI

KOMUNITATEA

AEK EUSKALTEGIA URNIETA

2024-2025 ikasturtean Urnieta euskalduntzen jarrai dezagun

Herritar oro euskaraz eroso bizitzea: hori da AEKideok dugun helburua. Horretarako, hiztun aktiboak ez ezik, euskara ulertuko duten herritarrak ere beharrezkoak ditugu: euskaraz bizi direnak, euskara pausoz pauso ikasten ari direnak, zein seme-alabak euskalduntzeko hautua egiten dutenak. Guztiguztiok gara beharrezkoak. Harro gaude herri honetako pertsona askok helburu horrekin bat egin duzuelako, izan euskaltegiko ikasle, Mintzalagun zein Zilegi Eskolako partaide. "Harro herri!" oihukatu dezake Urnietak ere.

KOMUNITATE GERO ETA INDARTSUAGOA

Komunitate benetan ederra sortzen ari da herrian, urtez urte gero eta indartsuagoa dena, eskolatan zein eskolaz kanpoko ekintzetan islatzen den gisan. Gu, geure txikian, saiatzen gara euskara ikasteak zentzua duela ulertarazten, egunerokoan baliagarri izango den euskara irakasten, euskarazko ekintzak antolatzen, euskarazko edukietara erakartzen... horrek guztiak lagunduko duelakoan Urnietan euskaraz gero eta erosoago bizitzen.

DATORREN URTEAN, ZER?

Konturatu orduko ikasturtea bukatzen ari da, eta 2024-2025 ikasturteari begira jarrita gaude jada. Gure asmo eta ekinek berberak izaten jarraituko dute, gure herria euskalduntzeko asko falta baita oraindik. Gogoz gaude datorren ikasturtean ere ikasle zein herritarrei euskaraz aritzeko aukerak zabaltzeko, baita herriko gainerako eragileekin saretzen jarraitzeko ere.

Aurrera egiteko, noski, funtsezkoak izango ditugu euskarrikasleak. Ireki dugu datorren urteko aurrematrikula-epea, eta deia egin nahi dizuegu urnietarroi, zuen inguruko lagun eta ezagunen artean euskaltegian izena emateko mezua zabaldu dezazuen.

Aurrematrikula egiten baduzu, hainbat abantaila izango dituzu: aurtengo prezio bera; malgutasun handiagoa ordainketan, eta lehenetsuna taldeak osatzerako orduan. Izena eman nahi baduzu, zatoz Urnietako AEKra, idatzi e-posta urnieta@ae.eus helbidera, edo deitu 662 338 747 telefonozenbakira. Badakigu presaz betetako gizarte euskara ikasteak ahalegina eskatzen duela, baina sinetsita gaude bidea egitea mereziko duela.

Eskerrik asko, Urnieta!



Alkorta-Ponce eta Loidi anaiak elkarren aurka, herritarren begiradapean. AIURRI

Galdu ezin daitekeen hitzordua

Iturzaeta memoriale apirilaren 27an hasi zen, eta aurreko asteburuan finalaurrekoa eta finalak jokatu ziren. Guztira, gizonezko 42 bikotek eta emakumezko 9k parte hartu dute. Denbora tarte honetan dozenaka partida jokatu dira, Sorabillan

Mikel Arberas ANDOAIN

Lehen egunetik, ikusmira handia izan zen, askorentzat, urteroko kirol-txapelketa interesgarriena izan ohi da eta. Frontoiaren berezitasunek hamarnaka herritar erakartzen ditu, bai jokalaria gisa eta bai ikusle modura. Esanak esan, larunbat arratsaldean afari-apustua, finalerdiak eta finalak jokatu ziren. Emakumezkoen partidetan, Nora Mendizabalek eta Yanire Mosquerok beren nagusitasuna erakutsi zuten frontoian. Finalerdia 25-10 irabazi zuten Ainhi-ze Urkola eta Neide Garmendia- ren aurka. Jarraian finala 25-12 irabazi zuten Amaia-Edurne bikotea garaituta. Lehen urtea zen elkarrekin jokatzen zutelak, baina maila ona erakutsi zuten elkarrekin. Mendizabalek pilotakada sendoak eman zituen eta Mosquerok ondo eutsi zuen aurrean uneoro. Hasieran, norgehiagoka orekatua zirudien arren, partidak aurrera egin ahala, Amaiak eta Edurnek erritmoa jaitsi zuten.

Gizonezkoetan, Ponce-Alkorta eta Loidi anaien arteko finala jokatu zen. Loidi anaiak nagusi izan ziren larunbat arratsaldean, Arberas-Irazu garaituta finalerdian (25-10) eta Ponce-Alkorta finalean (25-15). Markagailuak bestelakoa erakutsi zuen arren, partida erdikalderarte joko orekatua egon zen, baina Julen eta Ander Loidik erritmoa igotzearekin batera, markagailuan aldea ateratzen hasi ziren. Par-

tida ikusgarria aurreikusten zen, iaz, Ponce eta Alkorta izan baitziren txapeldunak; dena den, ikusleek maila handiko norgehiagokaz gozatzeko aukera eduki zuten.

Horrez gain, gizonezkoen finalerdiaren eta finalaren artean, afari-apustua jokatu zen, Amilibia-Agirre eta Amas aita-semearen artean. Xabat Amilibia eta Mikel Agirre izan ziren garaileak.



Nora Mendizabal gorriz eta Ainhi-ze Urkola urdinez. AIURRI

Finalaurrekoak eta finala



Yanire Mosquero eta Nora Mendizabal txapeldunak, Ponce eta Alvarez. AIURRI



Amaia Gonzalez eta Edurne Osa txapeldunordeak. AIURRI



Ander Loidi eta Julen Loidi txapeldunak. AIURRI



Xabier Alkorta eta Koldo Ponce txapeldunordeak. AIURRI



ITURZAETA MEMORIALA







Amonarriz, Ochoteco eta Lizeaga, aurtengo podiuma. KRONIKA

Hirugarren helmugaratu zen Lizeaga, Ereñotzun

Ereñotzu auzoko mendi-lasterketan urnietarrak eta andoaindarrak elkartu ziren. Helmugara lehenetarikoa iristen izan zen Jokin Lizeaga urnietarra. Lesioek uzten diotenean sasoiko dagoela erakusten du korrikalari prestuak

Erredakzioa URNIETA

Zegama-Aizkorri lasterketa entzutetsua amaitu eta gutxira, eskualdean garrantzi berezia hartzen duen lasterketa egin zen joan den asteburuan: Ereñotzuko mendi-lasterketa. Amonarriz eta Sarrate izan ziren onenak, helmugan. Lehiakideen artean izan ziren Andoaingo eta Urnietako korrikalariak.

Sailkapena

Gizonezkoak:

1. Ander Amonarriz 1:04:20.
2. Aimar Ochoteco 1:04:40.
3. Jokin Lizeaga 1:08:28.


Emakumezkoak:

1. Claudia Sarrate 1:27:55.
 2. Nerea Amilibia 1:28:55.
 3. Maddi Ormazabal 1:29:58.
- Andoaindarrak eta urnietarrak:
11. Aritz Mujika 1:13:27 (Andoain).


14. Mikel Legarreta 1:14:10 (Urnietara).

15. Mikel Elorza 1:14:10 (Urnietara).
27. David Andres 1:20:14 (Urnietara).
45. Pablo Fraisoli 1:27:06 (Urnietara).
46. Andoni Tena 1:27:20 (Andoain).
55. Ibai Garmendia 1:29:17 (Urnietara).
92. Joseba Arretxe 1:40:13 (Urnietara).

Andoaingo eta Urnietako partaidetza



Mikel Legarreta, Mikel Elorza eta Joseba Arretxe. KRONIKA



Ibai Garmendia, Andoni Tena eta Aritz Mujika. KRONIKA



Jokin Lizeaga. KRONIKA

Iñosen Mujika. KRONIKA

Argituz doa Sagardoaren Txapelketaren sailkapena

Urriza-Martirena (Aburuza) eta Ansa II.a-Zubiri (Bereziartua) garaile izan ziren, aurreko jardunaldian

Erredakzioa URNIETA

Sagardoaren Txapelketan, aurreko asteko garaileek aurrerapauso garrantzitsua eman dute finalaurrekoetara sailkatzeko. Bi partiden artean izan zen antzekotasuna, biak ere oso pare-

katuak izan zirelako. Lehenengo partidan, Urrizak eta Martirenak 15-11 eta 15-8 garaitu zituzten Seguroa eta Larrañaga. Oriamendiren aburuz, "gakoa atzelarien arteko borrokan egon zen. Martirena, Larrañaga bai-

no hobeto aritu zen eta horrek lanak erraztu zituen. Faboritoak ziren eta pronostikoa goitik-behera bete zuten".

Bigarren partidan 15-9 eta 15-9 irabazi zuten Ansak eta Zubirik, Aldabe eta Juanenearen aurka: "Zubirik askoz hobeto atera zuen Juaneneak baino. Akatsik ez zuen egin eta Ansak pilota asko izan zituen tantoak amaitzeko. Hamaika tanto egin zituen guztira aurrelari urnietarrak, lau lehenengoan eta zazpi bigarren jokoan".



Ansa urnietarra. ORIAMENDI



URNIETA KE

Kopako finala jokatuko dute

Urnieta Guria Jatetxea gizonezkoen jubenil taldea finalean da, aurreko asteburuan Amenabar taldea irabazi ostean (40-32). Finalean aurkari izango dute Pasai Donibane. Finalaurrekoan urnietarrek ez zieten aukera txikiena eman Amenabar taldeari. Ia norgehiagoka osoan urnietarrak 4-5 goleko aldearekin izan ziren aurretik.



Aimar Beroz kadetea. GAZTELEKU

Andoain-Zaldibia, ostiral honetan Arraten

Joanekoan, Zaldibia 2-1 gailendu zen. Ostiral honetan itzulera jokatuko da, 19:30ean hasita

Erredakzioa ANDOAIN
Zaletuen beharra izango du Andoain taldeak, ostiral honetan. Joanekoan, Mikel Gaztañaga eta Aimar Beroz kadeteek garaipena eskuratu zuten lehen partidatan, Mantzizidor-Lopez bikotea garaituta (17-22). Jubeniletan, berri, Salbadorrek eta Uriak ezin izan zuten beren maila erakutsi, eta galdu egin zuten (22-9). Seniorretan, Urruzolak eta Belokik aurkari finak izan zituzten, eta ondo lehiatu zuten arren, garaipena zaldibiarrek eraman zuten (22-15).

Itzulera ostiralean jokatuko dira, Arraten, arratsaldeko 19:30ean hasita.



EUSKALDUNA

Kopako txapeldunorde dira

Euskaldunak finalaren eta giroaren laburpen bikaina egin zuen, sareetan: "Jubenil B taldeak Kopa finala jolastu du Aloña Mendiren aurka, Bergarako Agorrosinen. Bi autobus joan dira Andoaindik, jokalariekin eta afizioarekin. Animoak ez dira falta izan, eta jokariak gogor aritu dira baina azkenean 2-1 galdu dute. Txapeldun-ordearen kopa ekarri dute Andoainera. Zorionak!"



BARAKALDO

Gaztañagaren ospakizuna

1RFEF mailara igo da Barakaldo taldea eta bertan da Jon Gaztañaga andoaindarra. Denboraldi osoan jokatzen aritu da bertan. Azken buruz burukoan Orihuela taldea kanporatu dute. Beren ligan igoera eskuratu dute, Bilbao Athletic taldearekin batera. Lehen eta Bigarren mailaren atzetik, elitearen ateetan egongo dira denboraldi berrian.



URNIETA KE

Urnieta Artola, txapeldunorde

Urnieta Artola Harategia gizonezkoen senior mailako taldeak ezin izan zuen eskubaloiko kopa preziatua etxera eraman, Soraluze taldearen aurka galdu ostean (29-23). Hasiara ona izan zuten urnietarrek, baina, partidak aurrera egin ahala, aurkariak neurria hartzen joan ziren, markagailuan aurre hartu eta alde handia atera zuten.



ERREMONTARI

EKAINAK 06 OSTEGUNA 17:30EAN

GALARRETA JAI ALAI HERNANI

SAGARDOAREN TXAPELKETA

2 0 2 4

01. partida (3 setera)

ARLUZIAGA · APEZETXEA vs **SUSPERREGI · GOIKOETXEA VI**

02. partida (3 setera)

Alorrenea **LOITEGI · BARRENETXEA IV** vs **EZKURRA II · AZPIROZ**

03. partida (3 setera)

ABURUZA **URRIZA · MARTIRENA** vs **GURUTZETA · ALDABE · JUANENEA**



SARRERAK ENTRADAS


















Urki dantza taldeko gaztetxoak, Goikoplazan. AIURRI

Euskal folklorea biziberritu zuten Andoaingo Haurren Euskal Jaialdian

Tradizioa biziberritzeko transmisioa garrantzi handiko aldagaia da. Haurren Euskal Jaialdian arreta berezia ipini diote xehetasun horri, hainbat kultur adierazpideetako gazteei trebatzeko aukera eskaintzen diotelako

Erredakzioa ANDOAIN

Huarte-Iruñako joteroak, Lizarrako dultzaineroak, Arrasateko erraldoien konpartsa txikia, Urki dantza taldeko txikiak. Gaztetxo horiei guztiei jendurrean aritzeko aukera aparta eskaini zien Urki Dantza Taldeak, aurreko igandean. Goizean, kalez kale, lehen saioak eskaini zituzten eta, eguerdian, saio jendetsua Goikoplazan egin zuten. Erromeriarekin amaiera eman zioten Haurren Euskal Jaialdiaren 34. edizioari.



Haurren Euskal Jaialdia

Argazki-bilduma, bideoak...

WEBGUNEAN IKUSGAI

www.aiurri.eus

34. Andoaingo Euskal Jaialdia



Baionako dantza-taldea, Goikoplazara iristen. AIURRI

Euskal Herri osoko ordezkariak Zornotza, Añorga eta Baionako dantza taldeak, Urnieta eta Amasa-Villabonako trikitilariak, Huarte-Iruñako Joteroak, Deba eta Lizarrako gaiteroak eta Arrasateko Erraldoi Txikien Konpartsa hurbildu ziren igandean.



Dantzarian emanaldia eta, atzealdean, Arrasateko erraldoi txikiak. AIURRI

Ekitaldi nagusia, Goikoplazan Goizean hainbat txokotan aritu ostean, eguerdian saio nagusia egin zuten Goikoplazan. Bazkaria egin zuten, jarraian, eta, arratsaldean, erromeriarekin amaitu zen ospakizuna.



Goizean kalejira egin zuten udalerriko hainbat txoko igaroz. AIURRI

Andoaingo eta Urnietako taldeen partaidetza Euskal Herri osoko ordezkarien artean ziren Andoaingo eta Urnietako trikitilariak, eta nola ez, Urki Dantza Taldeko dantzariak. Olagain txistulari elkarteko kideak ahaztu gabe.



Elkartea jendez lepo bete zen, aurreko larunbat eguerdian. SONIA CANALES

Hogar Extremeñoen kultur astea

Ekaineko lehen astean Hogar Extremeño Miajon de los Castuos elkartearen areagotu egiten da kideen joan-etorria, kultur asteak erakarrita. Aurreko larunbatean hasi eta hurrengo igandera bitarte, ekitaldi ugari iragarrita daude

Xabier Lasa ANDOAIN

Ekainaren lehen larunbatearekin, kultur astearen 45. edizioari ekin zioten. Familia ugari, hainbat belaunaldi, elkartu ziren bertan. Agintariei harrera eskaini eta gero, lagunarteko bazkaria eta dantzaldia iragarrita zeuden. Aste osoan, gainera, neska-mutilen marrazki lehiaketako lanak ikusgai daude elkartearen liburutegian. Erakusketak osatzeko, bestalde, Emilio Vigo, Aurora de Casa eta Marisol Reche artisauen lanen erakusketa egokitu dute.

Patata-tortilla lehiaketa, astelehenean

Irabazlea Aintzane Diaz izan zen. Epaimahaikide-lanetan aritu ziren Eva Almeida, Damian Fernandez, Aitor Perez Lasa eta Mikel Rodriguez.

Sukaldaritza tailerra, asteartean

Patata-tortilla lehiaketan epaimahaikide aritu zen Mikel Ro-

driguez izan zen hurrengo eguneko jardueraren protagonista. Ogibidez sukaldaria da eta tailerra eskaini zuen, ilunabarrean. Bi plater goxo prestatzeko argibideak eskaini zizkien elkartera bertaratu zirenei. Batetik, legatza otarrainxkez eta onddoez beteta. Bestetik, ahate-magrea bi saltsatan: Oporto erara eta fruitu gorriekin. Rodriguez korrika bezain trebea da sukaldari eta irakasle-lanetan, horixda elkartearen elkartu zirenek atera zuten ondorioa.

Sardina-jatea

Asteazken arratsaldean janariaren bueltako hitzordu bikoitza zuten elkartearen: txokolate beroa eta sardinak.

AINTZANE DIAZ IZAN DA AURTENGO PATATA-TORTILLA LEHIAKETAKO IRABAZLEA

Ekainak 7, ostirala

19:00 Abesbatzen eta dantza taldeen jaialdia, Bastero Kulturgunean. Parte-hartzaileak: Donostiako Extremadurako Etxea, Semblante Andaluz (Lasarte-Oria) eta Erketz Dantza Taldea (Lasarte-Oria).

Ekainak 8, larunbata

11:00 Barbakoan eta haragi-mozketan trebatzeko ikastaroa, Mikel Rodriguez sukaldariaren eskutik.

Ekainak 9, igandea

10:00 Miga lehiaketa.
11:00 Toka eta igel-toka jokoen lehiaketa.
17:00 Sari-banaketa ekitaldia.

KORRIKALARI BEZAIN SUKALDARI ETA IRAKASLE TREBEA DA MIKEL RODRIGUEZ

Hogar Extremeño elkarte



Igandera bitarte, Emilio Vigo, Aurora de Casa eta Marisol Reche artisauen lanak ikusgai egongo dira, marrazketa lehiaketako marrazkiekin batera. s.c.



Udal ordezkarietara harrera egin zuten, Kultur Astearen hasieran. SONIA CANALES



Patata-tortilla lehiaketa egin zuten astelehenera arratsaldean. SONIA CANALES



Sukaldaritza tailerra zuzendu zuen Mikel Rodriguezek, asteartean. AIURRI

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 6

ANDOAIN Erakusketa

Elkartearen egoitzako liburutegian Emilio Vigo, Aurora de Casa eta Marisol Reche artisauen lanak ikusgai egongo dira, marrazketa lehiaketako marrazkiekin batera.
Azken eguna: Ekainak 9.
Hogar Extremeño elkarte.

ANDOAIN Merkataritza

Bonoak erosteko kanpaina martxan jarri da. 30 euro ordainduta 50 euroko gastua egin daiteke.
Azken eguna: Ekainak 30.

ANDOAIN Entseguak

Axeri-dantza prestatzeko entseguak, Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian.
19:00-20:00, Ondarreta.
Ekainak 6, 11, 14, 17, 20.

OSTIRALA 7

ANDOAIN Erakusketa

Maddi Zumalabe Irastorza artistaren 'Laua eta Sakona' lana ikusgai.
Ekainak 7-uztailak 5.
Bastero, erakusketa gela.

ANDOAIN Kultur Astea

Hogar Extremeñoen kultur astea: Abesbatza eta dantza emanaldia. Partaideak Donostiako Extremadurako Etxea, Semblante Andaluz (Lasarte-Oria) eta Erketz Dantza Taldea (Lasarte-Oria).
19:00, Bastero.

LARUNBATA 8

ANDOAIN Kultur Astea

Hogar Extremeñoen kultur astea: Barbakoaren eta haragi-mozketa Mikel Rodriguez sukaldariaren eskutik.
11:00, elkarte.

ANDOAIN Kontzertua

"Berrito asma nazazu" lan berria eskainiko du Tenpora taldeak.
19:00, Otieta.

URNIETA Ospakizuna

1974 urtean jaiotakoek bazkaria egingo dute Oianumen.
Bazkaria Oianumen.



Tenpora taldeko kideak. ZUMALABE

ANDOAIN Musika zuzenean, Otieta

Hasier Oleaga baterijolea, Itsaso Etxebeste baxujotzailea, Juantxo Zeberio Etxetxia pianojotzailea, Beñat Barandiaran gitarra jolea eta Elene Arandia kantaria dira Tenpora musika taldeko kideak. "Ama" lan berriena aurkeztuko dute Leitzarango Otieta parkean. Kontzertua 19:00etan da eta sarrera doan izango da.
Ekainak 8, larunbata. 19:00, Otieta bisitarien etxearen aurrealdean.

IGANDEA 9

ANDOAIN Kultur Astea

Hogar Extremeñoen Kultur Astea: 10:00etan miga lehiaketa, 11:00tan toka eta igel-toka lehiaketa eta 17:00tan sari banaketa ekitaldia.
10:00, elkarte.

ANDOAIN Haur antzerkia

"Bo jauna" maskara ikuskizuna.
12:00, Bastero.

ANDOAIN, URNIETA Bozak

Europako Legebiltzarra.
Emaitzak: Aiurri.eus.

LARUNBATA 15

ANDOAIN Rock Jaialdia

Eguerdian, Amorante, Indabe eta Munlet. Jaialdi nagusia: Goat girl, The bug club, Howlin' Jaws, Tramhaus, Pinpilussies, Ithaka.
18:00, Nafarroa plaza.



ZINEMA


**ANDOAIN****BASTERO****Iris**

Larunbata, 8.
19:30, 22:00.
Igandea, 9.
19:30.
Asti, 10. 19:30,
22:00.

Lassie (Una nueva aventura)
Lar, 15. 17:00.
Ig, 16. 17:00.

Segundo premio

Larunbata, 15.
19:30, 22:00.
Igandea, 16.
19:30.
Asti, 17. 19:30,
22:00.



SINOPSISIA

**Iris**

Zuzendaria: Caroline Vignal. **Gidoia:** Caroline Vignal, Noemie de Lapparent. **Aktoreak:** Laure Calamy, Vincent Elbaz, Suzanne De Baecque... **Herrialdea:** Frantzia (2024). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, komedia. **Iraupena:** 97 min.

Desioa eta maitaleak

Irisek senar bikain bat dauka, bi alaba zoragarri, bezero ugari hortz-kontsultategian, apartamentu polit bat maite duen eremu batean, maite duten

lagunak... Eta laster 50 urte beteko ditu. Halakoren batean, maitaleak bilatzeko aplikazio batek bere bizitza irauliko du zeharo.

Urnietako Gaztelekua

Urnietako Gaztelekuak 11-17 urtekoentzat ekitaldiz beteriko eskaintza aurkeztu du, uda honetarako. Izena emateko epea ostiral honetan amaitzen da. Gurasoei azalpenak emango dizkiete, datorren ekainaren 18an Gaztelekuan bertan egingo den bileran. Hitzordua 19:00tan hasiko da. Informazio gehiagorako telefono-zenbakia 608 928 311 da.





AIURRI

“Egape Bidaiak” ikuskizuna

Sareetan egin du iragarpena Egape Dantza Taldeak: "Datorren ekainaren 16an, "Egape Bidaiak" izeneko ikuskizuna izango dugu bi taldeen eskutik: 18:30ean, helduen taldea eta, 19:30ean, gazteen taldea. Argazkia 2017ko ekainaren amaierako da, "Oi Ama" dantza eskaini zutenekoa. "Plazara plazerez" izan zen, orduko hartan, Plazido Muxika plazan eskaini zuten ikuskizuna.



AIURRI

Hauteskundeen emaitzak

Igande honetan, ekainak 9, Europako Legebiltzarreko ordezkariak berritzeko hauteskundeak deitu dituzte. Espainian, agintari ofizialek iragarritakoaren arabera, emaitzak gaueko 23:00tan eskaintzen hasiko dira. Aiurri.eus webgunean herriz herriko albisteak ikusgai izango dira. Ohi bezala, datuak eta grafikoak, aurreko hitzorduekin alderatzeko moduan.



Urnietako
udala

Axeri-dantza, entseguak

San Juan jaietan, ekainaren 24an, Goikoplazan egingo den Axeri Dantza prestatzeko, entsegu-sorta deitu dute antolatzaileek. Honakoak: ekainaren 6, 11, 14, 17 eta 20an, iluntzeko 19:00etatik 20:00etara, Ondarreta Herri Eskolako jolastokian. Izen-ematea e-postaz egin behar da andoangoaxeridantza@gmail.com e-postara idatzita.



AIURRI

Entseguen ekin diete

Agustin Leitza elkarteko kideek danborrada eskaintzen dute, San Juan jaien hasieran. Dagoeneko ekin diete entseguen ekin diete eta honako hauek dira hurrengo hitzorduak: ekainak 7, 10, 13 eta 18 Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian, iluntzeko 19:30ean hasita. Ekainaren 23an kalez kale ibiliko dira eta emanaldi nagusia Goikoplazan eskainiko dute.



AIURRI

DANTZA IKUSKIZUNA


Egape bidaiak

EKAINA
16
SAROB
URNIETA

18:30 helduen emanaldia
Doan

19:30 gazteen emanaldia
Sarrerak 3 €. Eskuragai 2KN okindegian (San Joan Plaza) eta txarteldegian ordu erdi lehenago

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN
Eki Zia Marcos
5 urte beteko ditu ekainaren 9an. Zorionak eta muxu handiak!

ODOL-EMAILEAK



HITZORDUA

Ekainak 10, astelehena.
ANDOAIN
Anbulatorioa:
16:30- 20:10. Joan aurretik deitu:
943 007 884.

KOMUNITATEA

ETENETA ELKARTEA
URNIETA

Bazkide gonbidatua, Eteneta elkarteko berrikuntza

Urnietako Eteneta elkarte gastronomiko kulturalak barne araudia aldatu du bazkide berriei sarrera emateko. Horretarako "Bazkide Gonbidatua" figura sortu du.

Informazio gehiago nahi izanez gero jarri harremanetan helbide elektronikoa honetan sociedadetenetaurnieta@gmail.com edo WhatsApp bidez 660556162 zenbakian



Javier Zatarain, Euskaldunaren 100 urteak kontatzen dituen liburuaren egilea. AIURRI

Euskaldunaren ehun urteak datu, kronika eta argazki bidez

Euskalduna Andoaindarrak klubak mendeurrena ospatu zuen iaz, eta egunotan, hamarkadetan zuzendaritza kide izan zen Javier Zatarain argazkilariak ehun urte horiek hitzez eta argazkiez biltzen dituen 576 orrialdeko liburua kaleratu du

Xabier Lasa ANDOAIN

Informazio anitza biltzen du "S.D. Euskalduna Andoaindarrak Fundazioaren 100 urteak" izenburua duen liburua, 1923-2023 epe historikoa kontuan hartuta: afizionatuen eta jubenil mailako jokalarien zerrenda, bi maila horietan izandako ia 60 entrenatzaileen errepaso, taldeak eduki dituen 31 presidenteen soslaia, Euskaldunak hirugarren mailan egindako zazpi denboralditako ibilbidea (jokalariaik, jokaturako neurketak...), gole-

gileak, gertakizunen prentsa-hemeroteka, argazkiak...

Egileak bi modu jarri ditu liburuaren eskaerak egiteko: batetik, Stop liburu-dendan zuzenean; eta, bestetik, honako bi telefonoetako batera deituta: 943591603 edo 653742252.

Liburuak eskatu ahala kaleratzen joango da egilea, hurrengo aste eta hilabeteetan. Era horretan, Stop liburu-dendan ekainaren 15a baino lehenago erreserba egin dutenek, ekainaren 20tik aurrera jaso ahal izan-

go dute liburua. 20 euroko salneurria du liburua.

Zatarainek beste bi liburu argitaratu zituen Euskaldunaren gainean, iraganean: Euskalduna Andoaindarrak K. E. 75. urteurrena 1998an, eta, Euskalduna K.E. Hirurogeita hamasei denboraldi (XX-XXI mendeak) 1999an.

Orduak eta orduak, bihotzeko klubari eskainita

Javier Zatarain ia hiru hamarkadetan Euskalduna klubaren zuzendaritzako kide izan zen.

Aurretik Euskaldunako presidente lanetan aritu ziren aitoren (Edmundo Abad) eta aitaren (Manuel Zatarain) arrastotik segi izan du.

Bestalde, Zatarain, argazkizalea izaki, 80ko hamarkadan hasi zen Euskaldunako taldeei argazkiak ateratzen eta partiduen kronikak idazten *El Diario Vasco* egunkariarentzat. Harrezkero, Euskalduna klubeko kronikalari ofiziala bilakatu zen. Gainera, aipatu egunkariko argazkilari gisa, Andoainen kirol, gizarte eta kultur kutsuko ekitaldietan makina bat argazki atera zituen. Horiek, aleka-aleka, Facebooken irekita daukan "Andoaindarrak De Futbol" kontuan argitaratzen ditu egunero.

Eginkizun horrekin batera, iraganera begira jarri zen, bilaketa lanari ekin zion, eta dirutan ordain ezin litekeen xede horri eutsi dio gaurdaino. Berak aitortu duenez "bihotzean darazulako eskaintzen dizkiozu zure bizitzako hainbeste ordu kirol erakunde bati; ez da posible bestela".

Modu horretan, egun, ondare aberatsa pilatu du erretratu zaharrekin, prentsa-kronikekin eta Gipuzkoako Futbol Federazioako artxiboan topatu ahal izan duen informazio guztiarekin. "Bertan urtetan eta urtetan idazkaria izan den Patxi Gabilondok adierazi izan dit Gipuzkoan ez dela hainbeste informazio jasota daukan futbol talderik, Reala bera ez dela iristen zehaztasun horretara. Are gehiago, estatu mailan, nekez egongo da halako talderik, esango nuke nik".

Egunero-egunero, zortzi bat ordu eskaintzen dizkie dokumentazio lan sistematikoko horiei. "Asteburuetan ere ez dut hutsik egiten. Goizeko 06:00etan jaikitzen naiz, eta lehenbizi, facebookeko kontua elikatzen dut; argazki zaharrenekin bat, eguneko prentsa kronikaren bat, datu historikoren bat... Ondoren, zuzen-zuzenean, Euskaldunaren lotutako lanei ekiten diet". Une honetan, eskuarte hiru proiektu dauzkala gogorarazi du Zatarainek: "Batetik, 1923-2023 epeko jubenil mailako datu guztiak jasota dauzkat eta ordenatzen ari naiz, etorkizunean liburu batera eraman litezkeenak. Bigarrenik, Joanes Iturrarte jokalariren ibilbidea biltzen duen liburuarekin nabil; histo-

rial polita dauka 200 partidatik gora jokatu dituen jokalariaik. Hirugarren egitasmoak, argazkien bilaketa errazteko aplikazioa ontzearekin dauka zerikusia".

Liburua, bere kabuz

Ekitaldi-sorta (mahai-inguruak, argazki erakusketa, aparteko partiduak, ikus-entzunezkoa...), antolatu zuen Euskalduna taldeak 2023an, bere ehungarren urtea ospatzeko. Bada, ekitaldi horietan Euskalduna taldearekin betidanik halako lotura estua eduki duen pertsona ez ikusteak harridura eragin zuela aipatuta, naturaltasunez azaldu du bere jarrera. "Joxean Huizi lehendakariarekin ia 10 urte egin nituen (2008-2017), eta, 2018-2019 denboraldian, talde berria sartu zenean, hortik aurrerako kudeaketa ez zela egokiena iruditu zitzaidan. Gizonezkoen Erregional Ohorezko Mailan Justo Lillo entrenatzaile zortzigarren jardunaldian kanporatu izana ere kudeaketa horren isla zela aipatu nuen nire Facebook kontuan".

Gehitu duenez, azken urtetako kirol-emaitzen estatistikari begiratzea komeni da. "Nahiko kaskarrak dira, eta adierazten dute arrazoi puntu bat badaukadala, nire ustez. Izan ere, eta nahiz eta txalagarria izan Andoingo gazteei kirola praktikatzeko aukerak ematea, aldi berean, kirol-emaitzak eskutik joan beharko lukete, lehia ofizialen dinamikan sartzeko erabakia hartzen duzun une beretik".

Bestalde, orain liburua ere bere kabuz argitaratu izanaren zergatia azaldu nahi izan du Zatarainek, "egungo zuzendaritzari liburu proposatu nion, baina ez nuen interes berezirik sumatu, eta, azkenean, neuk ateratzea erabaki dut".

Azkenik, aitortzen du desadostasun pertsonalen gainetik, mende bateko historia loriatsua daukan kirol instituzioa, Euskalduna, alegia, dela garrantzitsuena, eta, denen artean, nork bere tokitik, bultzatu behar dutela handi izaten segi dezan.

**STOP LIBURU-DENDAN
EGIN DAITEKE
LIBURUAREN
ERRESERBA, 20
EUROKO PREZIOAN**